Filosofia bezalako diziplina bat egoteak, eta maila administratiboan besteak bezalako sail bat edukitzeak, gogora ekartzen digu ulergarritasunaren eskakizuna ez dela guztia. Izan ere, zientziak eskakizun hori nabarmenki adierazi duen neurrian, ulergarritasuna espirituaren azken motorra izango balitz, begi bistakoa da filosofia soberan legokeela. Bestela esanda: soilik zientziaren kontzepzioa murriztu, eta inperatibo praktikoen lorpenak baldintzatutako jarduera bihurtuta, ahalko luke filosofiak berea bezala aldarrikatu ulergarritasunaren bilaketa. Baina zientzia bera, gauza guztien gaineratik, gure ingurune fisikoa eta, horrekin batera, gure izatearen zati bat ulergarri egiteko nahia dela onartuz gero, zer geratzen zaio filosofiari?

Galdera hori erantzuteko gure zibilizazioaren hastapenetara, pensalari jonikoekin eman zen hastapen argitsu hartara jo behar dugu.

### **Zientziaren pentsatzea eusten duten aldarrikapenak**

Askok galdetu izan diote bere buruari zein ote den joniarren pentsamenduaren berezitasuna; horien artean dago Erwin Schrödinger

zientzialari nabarmena. Eman diren erantzunetako batek uste du Jonian, lehen aldiz zibilizazioen historian, honako ideia hauen mugimendu bikoitzak bat egiten duela: fenomeno naturalen atzean ez dugu kanpoko indar edo borondateen esku hartzea bilatu behar, hala nola jainkoen apeta; eta ez dugu esan behar naturak autonomia edo bizi-raupena duenik ere; bigarren, natura autonomo hori ez da ausazkoa, bere baitan behar bat du gidari, greziar *anagke*a. Beharrezkoa da puntu hau apur bat gehiago esplizitatzea:



Behar naturalez hitz egiteak honako hau dakar: natura —arestian nioen bezala—, naturaz kanpoko entitateekiko burujabea dela aldarrikatzea ez ezik, gertakari bat ausazkoa ez dela, zerbaiti zor zaiola, beste gertakari batzuekin lotuta dagoela aldarrikatzea ere. Ardura posible guztiekin, zientziaren historiako printzipio problematikoenetako bat aipatzeko ausardia izango dut: *anagkearen* (gutxi gorabehera esplizitua) aldarrikapenaren pean natura behatzeak kontingentziarentzat lekurik ez dagoela hausnartzea dakar, gertatzen den orok bere kasua edo arrazoa duela (aurrerago itzuliko naiz kontu honetara) hausnartzea hain zuzen ere.

Baina horrek guztiak ez luke eskubiderik emango esateko ezen greziarren artean, eta bereziki joniar zibilizazioko pentsalarien artean, espirituen jarrera hori sortzen denik. Aristotelesek *episteme* gisa definitzen zuen guk zientzia gisa definitzen dugun jarrera hori. Ondorioz, beharrak pentsamenduarekin harreman potentzial bat duela kontuan

hartu behar dugu, halako moldez ezen pentsamendua haren ispilu bihurtzera hel baitaiteke; labur esanda, beharra *ulergarria* dela.

Jauzia itzela da, ordena naturalean ausazkotasunik ez dagoela aldarrika bailiteke. Hala ere, zoritxarrez, gure espiritua haren meandroen konplexutasunetik ibiltzeko ezindua dagoela pentsa dezakegu. Azken batean, giza-pentsamendua ordena naturala potentzialki islatzera heltzeko moduan dagoela dioen tesia *a priori* bat baino ez da, eta, zalantzarik gabe, zientziaren aurrerapen miresgarriek indartzen dute tesi hori, baina oinarrizko axiometatik harago doazen *a priori* ia guztiak bezala zalantzarigarria da. Ia alde aurretiko jarrera psikologiko bat da, egiazki eszeptikoaren itxuran kontrapuntua duena. Izan ere, eszeptikoarentzat proposizio garbi eta ezberdinen distira ameskeria hutsa baino ez da.

Naturaren ulergarritasunaren aldarrikapen honek badu ezaugarri bat, zeinari filosofoek ez ezik, Erwin Schrödinger bezalako zientzialari nabarmenek ere garrantzi handia eman dioten: gertaera naturalen ulermen eraginkorrak subjektua aldatzen du, baina ez dio objektuari eragiten. Naturak ulermen-ekintzaren aurrean agertzen duen ezaxola ordena naturalaren iraupenaren eta autonomiaren korolariorik bat da ia: natura hain da sendoa, ezen gardentasunaren eraginpean jartzen baita beldurrik gabe; natura behatu eta hura babesten duten belokak baztertzen dituenaren aurrean natura axolagabe geratzen da.

Zalantzarik gabe, gizakiaren esku hartzeak batzuetan natura aldatzen duela esan daiteke, eta alderdi hori erabakigarria da teknikari dagokionez. Baina zientziak ulergarritasun betebeharrak bat duela defendatzen duenak honako hau erantzungo luke: ulermenaz ari garenean, teknikak eginkizun instrumentala baino ez du betetzen (teleskopioa ilargia behatzeko eraiki zen, ez hura aldatzeko); horrez gain, gauzak aldatzeko teknikak duen gaitasuna zerbait oso azalekoa da naturaren baitan: material batzuk eraldatzen ditugu teleskopio bat egiteko, eta hark konstelazioen ordena agerrarazten du, baina haiek aldatu gabe. Egiazki, gaur egun batzuetan oso zaila da ulergarritasunaren eta teknikaren arteko dikotomia horri eustea (hala, adibidez, Alain Aspectek fisikaren alorrean egindako esperimenduak Bellen teoremaren pisu ontologiko berbera dauka, eta bien arteko nahasmenduak krisi itzela ezartzen du naturaz dugun irudikapenean); baina oztopoak oztopo, dikotomia horrek zeregin itzela izan du iraganean.

### **Zer gehitzen du filosofiak?**

Laburbilduko dut: Jonian sortzen da zientzia deitzen dugun hori, baina han sortzen da ere filosofia deitzen dugun hori: tesi klasikoa. Hala ere,

pentsamenduaren historialari handien argudioak aztertuta, errazagoa egiten da leku hartan zientziaren sorrera antzematea filosofiarena baino gehiago. Haren behar naturalaz eta ulergarritasunaz hitz egitea dispozizio zientifikoa egingarri egiten duten baldintzak mugatzea da. Zer gehitzen du, bada, filosofiak?

Lehenik eta behin, zalantza osagai bat. Ez da espirituaren potentzialtasunak naturarekiko duen zalantza bat; hau da, ulergarritasunarekiko zalantza bat. Beste maila bateko zalantza bat da, ulergarritasun horren euskarriari buruzkoa batez ere, ulermenaren subjektuaren ahalmenei buruzko zalantza bihurtzen dena.

*Physisa* berez zer den aldarrikatzean datzan jokabide bat da zientzia. Ez dagokio zientziari galdetzea zerk eragin duen gauzak horrela izatea. Arazoa sortzen bada..., beste kontu baten aurrean gaude. Izan ere, badi-rudi zientziaren atea ireki zituztenen artean sortu zela arazoa. Testu batek arazo hark hartu zuen itxuraren lekukotza ematen du. Galenok Demokritoren ahotan jartzen dituen lerro eder eta ezagun batzuek ari naiz, zeintzuek adimenaren eta zentzumenen arteko gatazka aurkezten baitigute. Adimenaren arabera, naturan benetakoa den bakarra atomoak eta hutsa dira, eta horiek hautemanezinak dira zentzumentzat. Zentzumenen arabera, ordea, gurpil zoro bat da adimenaren ideia; izan ere, zentzumenak dira adimenak bere ebidentziak ateratzeko iturri bakarra, eta, ondorioz, adimenak zentzumenak garaitzen baditu bere burua baizik ez luke garaituko: "konbentzio hutsagatik koloreaz mintzo gara, eta konbentzio hutsagatik ere gozoaz mintzo gara, eta baita mingotsaz ere; egiatan, atomoak eta hutsa besterik ez dago," dio adimenak. Baina hori entzutean zentzumenek (*aistheseis*) erantzuten diote adimenari: "Adimen gaixoa, zure ebidentzien iturria gara, eta garaitu nahi gaituzu. Zure garaipena zure porrota izango da"<sup>2</sup>.

Hortaz, esan liteke adimenak bere matrizea garaitu, eta, ondorioz, bere burua suntsitzen duela. Arazoa behin eta berriz agertuko da zenbait aldaerarekin, eta hori ez da bakarrik gertatuko filosofiaren historian zehar. Ohar gaitezen ezen bai adimenari bai zentzumen-pertzepzioari abantaila ematen bazaio, naturak legeak egiteari utzi dio.

Arazo hau zientziaren parean joan dela uste izan daiteke; hau da, pentsa daiteke filosofia ez dela zientziatik beretik sortzen, baina kontrakoa ere uste izan daiteke; hau da, fisikarien gogoetak berak galdera berri hau ekarri zuela. Bi hipotesien artean bereizketa egiteak filologia

<sup>2</sup> Diels- Kranz B 125.. *Die Fragmente Vorsokratiker* (Presokratikoen zatiak) Berlinen 1903ean argitara eman zen lehen edizioaz geroztik, gehiago ere izan dira. Hermann Dielsek abian jarri zuen bilduma, eta Walther Kranzek berriz prestatu eta osatu zuen. A letrak egileen lekukotzei aipamena egiten die; B letrak, berriz, haiei egotzitako zatiei.



zorrotzenaren eta historiografia filosofiko eta zientifikoaren armekin soilik egin daitekeen gogoeta ekarriko luke. Zalantzarik gabe, aipatutako testua oso berantiarra da, eta, ondorioz, arazoa zein modutan gauzatu zen azaltzen digu batez ere, eta ez hainbeste joniarren naturaren inguruan egindako gogoetaren emaitza gisa sortutako kontua izan zela. Hala ere, gutxienez esan daiteke adimenaren eta zentzumenen arteko eztabaidak oinarri bat baduela hartan. Hain zuzen ere:

Heraklito, Parmenides, Eleako Zenonen eta beste hainbaten pasarteek lekukotza jakin bat ematen digute: natura-behar objektiboaren eta hura ikertzeko giza-espituaren gaitasunaren arteko baiezkotasuna ez zela pitzadurarik gabea izan. Nolabait esatearren, nihilismoaren itzalak izan ziren, joniarren fisikaren eraikuntzaren oinarria eusten duten aldarrien bidezkoatasunaren zalantza piztu zuten susmoak.

Fenomenoen anizkoitzasun itxurazkoaren atzean bizirik dirauena *ura* da... edo, aitzitik, *airea*? Gutxienean, natura aldakor azaltzen da. Zergatik agertzen da ur gisa oraingo arrazoitzearentzat, eta apur bat geroagokoarentzat su edo aire gisa? Nola uztartu hori beharrenden ideiarekin? Horren inguruan eztabaida dago, ez hainbeste "urliak gauza bat dio eta sandiak beste bat" zentzuan, baizik eta dialektikaren zentzuan (arrazoitzen duten guztiekiko barne-polaritatea baita *dialektika*); izan ere, arrazoitzen duen horrek zioak ikusten ditu bai gauza batarentzat bai bestearentzat. Subjektu linguistikoaren beraren baitan zalantza bat dago, eta zalantza hori larriagotu egiten da behar naturalean naturaletik ezer ez duen zerbait sartzen denean. Pitagorikoez ari naiz, zeintzuek (geroago platoniko berantiarrek egingo zuten bezala, eta zientzia modernoaren hasieran Galileok) fenomeno naturalen oinarri gisa, bai zentzumenentzat bai zenbakientzat heldugarritasun gutxi duen kontu bat sartu baitzuten.

Zenbakiak adimenaren kontua dira egiatan; hori dela-eta, dena ura dela esatea edo dena zenbakia dela esatea oso gauza ezberdina da. Jada, ordurako, adimenaren eta zentzumenen arteko eztabaida saiheztsezina da. Berritot, subjektuaren ahalmenei buruzko eztabaida bat da; eztabaida hori dagoeneko hasieratik zegoen, *physis*aren oinarria substantzia fisiko bat zela esaten zenetik; izan ere, zentzumenek sua antz ematen dute, baina horrek ez du esan nahi dena sua denik antz ematen dutenik. Eztabaida hura zientziatik sortu zen, baina zientziak (behar naturalaren esplorazio gisa ulertua), nolabait esatearren, bere burua gaindituta ikusten zuen hartan.

Hortaz, filosofia deitzen dugun hori greziarren munduan, naturaren esplorazioarekin harreman irekian eta fisikari joniarren aurkitu zituz-



ten aporien ondorio gisa sortzen dela ontzat jo daiteke arrazoiz. Hala ere, auzia irekia uzten dut gure garaian arreta jartzeko edo, hobe esan, mende bat atzera egiteko; izan ere, orduz geroztik arazoaren gakoak funtsean ez dira aldatu (hari emandako erantzun ez kontserbadoreak indartu dira).

Hortaz, joniarren fisikak zuzenean filosofiara eraman edo ez, arrazoi asko daude gure garaiko fisikak filosofiara daramala eusteko; alegia: fisikariek berek, beren diziplinaren baitan, zenbait aporiari aurre egin behar izan diote, eta, ondorioz, filosofoen pare, galderak egitera behartuta ikusi dituzte beren buruak, halako moldez non zientzia eta filosofiaren arteko muga porotsua egiten baita.

Legea (*nomos*) hiriarekiko dena, horixe da beharra naturarekiko, baina, beharraren kasuan, legeak baino hertsadura zorrotzagoak dakartzatza. XX. mendeko fisikak oinordetzan jasotzen du printzipio batzuek mugatutako naturaren pertzepzio bat, eta printzipio horiek naturaren hertsaduraren adierazpena bera dira. Egiatan, printzipio horien jatorria bilatzeko pentsalari joniarrengana jo beharra dago. Beharbada, Aristoteles izan lehena (beste hainbat gauzetan bezala) haiek partzialki formulatzen, eta, gerora, Newtonek eta Galileok begi-bistakotzat jo zituzten (haietaz hausnartzera heldu baziren behintzat), baina Einsteinek ageriko egin zituen, eta erradikaltasunez aldarrikatu..., hain zuzen ere, larriki kolokan jartzean hasiak zirela egiaztatu zuelako. Hona hemen printzipio horien laburpen txiki bat:

*Kausalitatea eta determinismoa.* Beharrarekiko dugun adostasunak ziurtasuna ematen digu ezen gertaera ororen atzean beste gertaera bat dagoela (edo gertaera sorta bat), lehenari noranzko bakarrean lotua; hau da, azken gertaera horrek zehazten du lehena, elkarrekikotasuna benetakoa izan ez arren. Noranzko bakarreko lotura horren adierazle gorena da lehen gertaera aurretikoa izatea; horrek, *techna* kontuan hartuz, honako ondorio hau dauka: giza-subjektua etorkizuneko ger-

taera partzialki aldatzeko gai da, baina ez du inola ere iraganean eragiteko aukerarik.

Horrek soilik esan nahi du kausalitate printzipioaren arabera jokatzeko dugula. Printzipio hori, denbora-norabidearen zentzuan aurkeztua, determinismo printzipio bihurtzen da, halako moldez non bi gauza berdinen arteko bilakaera bat etorriko baita, aldagarri ezezagunen bat tartean sartzen ez bada abiatze unean. Tartean sartuko balitz, itxurazko *identitatea antzekotasun* huts izango litzateke, edo prozesuz kanpoko eraginen ondorio. Printzipio honen gertaerak alde aurretik finka genitzake, eta, bere ezagutzazko alderdian, eragin berrien pean ez dagoen prozesu baten (esaterako, mundua eratzen duen prozesua) abiatze unean dauden aldagai guztien ezagutza hipotetikoa bermatzen du.

*Lokaltasuna.* Naturak baimentzen du jatorri komuneko bi izatek (benetako bi bikik, esaterako) norakotasun ezaugarriak partekatzea nahiz eta elkarrengandik urrun egon, baina ez du horietako baten gainean ekintza lokal bat (hau da, matrize komuneko osagai kausal baten batera ez murrizgarria) ahalbidetzen, aldi berean bestearekiko ondorioak izan ditzakeena.

*Individuazioa.* Naturak banakoen arteko harremanak kontuak hartzen ditu, baina ez du onartzen harreman horiek banakotasuna baliogabetzea, halako moldez non benetakoa harremana izango baita, eta ez harremanean pare hartzen dutenak: labur esanda, naturak ez du holismoa onartzen, ez du onartzen guztiaren adierazle izango litzatekeen egoera bakar batek banakoen egoera fisikoen adierazle den aniztasun bat ordezkatzeko.

*Errealismoa.* Alegia, aurretikoaren laburpena ia: halako hertsadurak naturaren kontua dira, ez naturan txertatu eta hura behatzen duten gizakiena. Ez da jarrera hartze bat ere, naturaren biziraupenak kanpoko esku hartze eta sorrerekiko duen korolario bat da ia. Natura bere portaeran ausazkoa ez dela diogu, baina behar hori naturatik beretik datorrela diogu; hau da, *errealistak* gara besterik gabe. Ondorioz, inguruneke gauza horiekin, ezaugarriak betetakoekin, harremanetan jartzen gara haiek gure menpe ez daudelako sentimendu ongi errotuarekin, baina badakigu haietaz egiten ditugun irudikapenak bai daudela gure menpe. Jakina, gu gabe haiek ez lirateke izango, eta, kasurik onenean, inguruneke gauzetatik banantzen gaituen hesia erlatibizatzen laguntzen digute. Labur esanda, gauzek beren izatea eta bilakaera dute, eta hala izaten jarraituko luke gu lekuko gisa egon gabe ere.

Naturaz dugun irudikapenaren eta printzipio arautzaileen artean dagoen korrelazioa kontuan hartuta, lehenaren autonomiari eustekak bigarrenaren sendotasuna ontzat jotzea dakar. Sendotasun hori hausten bada, kasu horretan lehenaren segurtasunak ere zabuka egiten du.

Gure eraikinei dagokionez, naturaren burujabetzaren kontzepzioa erabakitzen duten aldarrikapenak ahulak badira, orduan susmoa pizten da ezen aldarrikapen horien aurrean naturak noiz edo noiz ezin erantzungo duela. Labur esanda, aldarrikapenez eta ez axiomez ari garelako susmoa; ez da nabaritasunaren duintasuna duen zerbait, naturak berak ezarritako zerbait baizik.

Baina naturak ez badu horrelakorik erakusten, aukera bakarra gertzen da: guk sartu ditugu aldarrikapen horiek; guk gaindeterminatu dugu natura haiekin; guk ezarri ditugu, naturaren ezaugarri gisa ez bada, bai, behintzat, ikuspuntu gisa, zeinen bidez natura hautematen dugun.

Baina, horrela bada, zer esan nahi du *guk?*, zer ahalmenek erabaki du gugan natura berez zerbait dela eta lokaltasunari, determinismoari, kausalitateari eta indibiduazioari men egiten diola?

Gure garaian galdera horri heltzean, fisikaria Demokrito-Galenoren auzia berrartzen ari da, eta baita *Arrazoi hutsaren kritikaren* auzi garrantzitsua ere; naturari buruzko gogoeta hurbiletik gogoetan ari den izateari buruzko gogoetara igarotzen ari da.





Zientzia “greziarren moldean pentsatzea”ren emaitza dela idatzi izan da<sup>3</sup>, haren oinarria konbentzimendu hirukoitz burutsuan zegoela uste izan da: behar naturala dago; behar hori ezagungarria da; ezagutzak ezagutzen duen subjektua aldatzen du, ez, ordea, ezagututako objektua. Hala ere, esan daiteke gure garaiko fisika azken premisari buruzko susmo batetara bultzatua izan zela, pentsamenduaren neutraltasunari buruzko zalantza batetara, are ekintza ezagungarri hutsean (esan nahi baita, ezagun duguna aldatzeko helburuak bultzatzen ez duena): agerian jarritako natura horren lekuko huts izatetik urrun legoke adimena. Zalantzan jartze hori da, beharbada, fisika metafisika bihurtzen delako ezaugarri nagusia; hau da, filosofia bide egin duela.

Adimenak hipotesiak aurreratzen ditu handiaz eta ñimiñoaz, izarrez eta haragiaren edo harriaren itxuraren atzean dagoenaz, eta hala egin du objektibotzat jotzen zuen egia bat bilatuz, bere baitatik kanpo dagoena. Hala ere, gerta liteke haren jarduera guztiak Borges-en heroiaren adur berbera izatea, zeina, munduaren irudikapen global bat edukitzeko borondateak gidatuta, eskualdeen, haranen, mendien, itsasontzien, uharteen, ezagutza-tresnen, izarren edo galaxien irudiak landuz baitoa. Azkenean, heriotza ate joka duela, landu duen ezaugarrien labirintuak bere aurpegiaren irudia baino ez duela zehazten deskubritzen du.

Ezagutzaren izaera eskuzabala ez dela jada neutraltasunaren berme susmatzen du adimenak; izan ere, itxuren atzean bere eraikinak baino ez dira gordetzen beharbada. Susmo hutsa asko da jada. Zientziak sinetsi behar du ezagutzeko egitatean adimenak ez duela ezagututakoa

---

<sup>3</sup> Ergelkeria litzateke tesi hau joniarraren zibilizazioaren eta haren aurretik izan zirenen arteko ezein ezberdintasun hierarkiko gisa interpretatzea. Eta ergelkeria izango litzateke baita ere erlatibitatearen teoria ekarri zuen testuinguru kulturalari nagusitasuna ematea teoria hori asmatu zuela-eta. Joniako greziar hizkeran abian jarritako gogoeta beste ezein hizkuntzari gehi dakioke arazorik gabe, eta horixe da, hain zuzen ere, zientziaren nahiz filosofiaren unibertsaltasunaren froga. Zientzia eta filosofia hizkuntza eta eskualde jakin batean sortu ziren, baina etxean daude haiek altxoan hartzen dituen ezein hizkuntzatan.

aldatzen; egiatan, adimenak ezagun dena lantzen duelako aukera kontuan hartze hutsarekin sortzen da filosofia.

Zientzia egoera berri honetara eraman duten etapak bat baino gehiago dira<sup>4</sup>. Etapa berri horretan ez dago naturaren portaera —hura agerian jartzeko teman subjektuak baliatzen dituen espedienteekiko— burujabea delako ziurtasun apodiktikorik (hala gertatzen da argiaren kasuan eta azken ezaugarri sailkatzaileekin, diskretua-jarraitua). Baina, orduan, nola aldarrikatu natura iraunkorra dela?

Oharrean gogora ekarritako adibideak kasik leku komunak dira gaur egun: eragin foto-elektrokoak ehun urtetik gora ditu; Bellen teorema duela mende erdikoa da... Zer berritasun dakar, bada, diskurtso honek? Zientziak artxibatutakoaren ikuspegitik, bat ere ez. Filosofiaren gogoeta gaien ikuspuntutik, ezer gutxi gehiago. Zer zentzu du, bada, hartara itzultzeak? Bat, behintzat, bai: fisika kuantikoa ere munduaren kontzeptzio bat dela nabarmentzea; hau da, *sortzea* jardueratzat duen izatearen fruitu bat dela. Fisika naturaren ulergarritasun gisa gure ingurunean... Filosofia, orduan, fisikaren atzetik doa, baina haren helburu gisa ere, fisika bera bere oinarri funtsezkoetako batean potentzialki ahuldua denean. Eta honi dagokionez, garrantzi handiko ohar bat egingo dut hitzaldi honen helburuentzat:

XX. mendeko lehen hamarkadetan mekanika kuantikoa bere oinarritzko tesia garatu zuenean, ordurako, jakina, bazegoen filosofia. Baina hona berritasuna: mekanika kuantikoaren aporien ondotik, filosofia, lehendik bazegoen ere, berriro azaltzen da, fisikariak, lehendik zegoen metafisikarekiko ezjakin, metafisiko egiten baitira ustekabeen. Egiantan, fisikari horiek egiten dituzten galderak jada eginak zituzten Kantek eta beste hainbatek, baina ez da gauza bera horiek tradizio bezala jasotzea, testu-eskolastikaren bidez deskubritzea (hain miresgarria, bestalde) edo nor bere baitan sortzen ikusi eta zirriborratzen duten operotasunaren hegoetan zure burua eramaten uztea, haur batek hizkuntzaren bizitza osoa hizketan haste hutsarekin berregiten duenean bezala. Hizkuntza jada bazegoen hor haurra hartan barneratzen denean; hala ere, haurra hasieratik hasten da hizketan beti. XX. mendearen hasieran metafisikak berpizte bat bizi izan zuen, eta, hartan, berpiztearen protagonistetako batek begirada Joniara itzultzea ez da kasualitatea.

---

<sup>4</sup> Bidenabar, horietako hiru baino ez ditut aipatuko: eragin foto-elektrokoa, Youngen zirrikitu bikoitzarekin kontrapuntua eginez, argitan portaera intrintsekoki polarra erakusten zuena, eta argiaren izateari buruzko galderari zentzua kentzen ziona. Bellen teorema, partikula atomikoek aldarrikapen ontologiko klasikoiei men egingo balieketek, hortik itxaron litekeen portaeraren eta portaera horretaz fisika kuantikoa egiten zituen aurreikuspenen arteko bateraezintasuna azaltzen zuena. Azkenik, Alain Aspecten esperimentua, partikulen portaera eraginkorrak aurreikuspen kuantikoari arrazoi ematen ziola erakutsiz arazoa ebazten zuela zirudiena

Izan ere, zientziarentzat berarentzat filosofiarako pausoa emateak dakarren aldaketan, pentsalari batentzat lehen zientzialarien artean egotetik era berean lehen filosofoen artean egotera dakarren aldaketan, hortxe datza platoniar Akademia sortu aurreko mende miragarrian Jonian, Trazian eta hegoaldeko Italian gertatzen denaren errotikako berritasuna.

Galenoren elkarrizketaren azken gogora ekartzea, testuinguruari antzerti-forma emanez: adimena hipotesiak egiten ari zen itxuren oinarriari buruz, zientzia egiten ari zen... Eta, bat-batean, zertan ari den ikusten du, osorik ematen da horretara, zentzumenei beren nagusigoa disputatzen ari zaiela ohartzen da egiatan. Giza-adimenak bere buruari zintzoki esan diezaioke soilik bere aieruek (hutsa, atomoak... bere baitan landutako zerbaitek) ematen diotela gauzen izateaz ziurtasunen bat, eta, horri esker, adimen horrek etengabe egin dituen eragiketak beste ikuspegi baten pean ikusten ahal dira, teknika eta artea jardueretatik hasita. Nahiz zentzumena, nahiz adimena..., kontua da gizakiaren poloetako bakarra dela lekuko. Lekuko bakar? Lekuko bakarti ere? Kontua da zein zorroztasun mailarekin "bizi" den hizkuntzadun beste izakiek Alain Aspecten edo Anton Zeilingerren esperimentuen fotoia baino berme gehiago ez izatea izaki substantzial gisa; edo zein zorroztasun mailarekin "bizi" den haien portaera Kantek transzendental gisa izendatutako subjektu baten neurtze-objektua izatea (esperientziaren aukeraren baldintza).

Kantek eramaten gaitu subjektu transzendentalarengana, eta subjektu hori hiriak eratu eta haien baitan subjektu... enpirikoentzat hilerriak eraiki direla ikusten duen lekuko bat da: izaki enpiriko bereziak halere, haietako bakoitzean ardaizten baita osorik bere presentzia bermatzen duen subjektu transzendental hori: gu guztiok eta gutako bakoitza da ni iragankorra, zientziaren aukeren baldintzen eramailea, eta, aldi berean, esperientziaren antolatzailea (cogito kartesiarraren je oparo hori, *moi* antzu eta preseski bere baitan ardaztuarekin zerikusirik ez duena). Utzidazue gogoeta hau amaitzen arestian gogora ekarritako Jorge Luis Borgesen hitzekin:

"Gizon bat mundua marrazten ahalegintzen da. Urteetan zehar, leku bat betetzen du irudiekin: probintziak, erreinuak, mendiak, badiak, itsasontziak, izarrak, zaldiak eta pertsonak. Hil baino apur bat lehenago, lerroz osatutako labirintu jasaile horrek bere aurpegiaren irudia trazatzen duela deskubritzen du"<sup>5</sup>.

*Sestiere di Cannaregio- Pasai Donibane*  
*Apirila-Ekaina 2015*

<sup>5</sup> Jorge Luis Borges, "Epilogo", *El Hacedoretik* hartua, 1960.



## TRAS LA FÍSICA JÓNICA Y LA FÍSICA DEL SIGLO XX. NACIMIENTO Y RENACIMIENTO DE LA METAFÍSICA.

### **Preliminar: función de la filosofía y concepto de universidad**

Hace más de treinta años utilicé el subtítulo de este apartado para poner prólogo a *La filosofía como institución*, texto de un renombrado filósofo francés publicado en una editorial de Barcelona<sup>6</sup>. El libro recogía el curso que el profesor Jacques Derrida había impartido dos años atrás en uno de los anexos inutilizados de la residencia de ancianos de la colina de Zorroaga, refugio para el embrión de la futura Facultad de Filosofía, Psicología y Ciencias de la Educación de la Universidad del País Vasco.

El profesor Derrida representaba una línea de pensamiento polémica para muchos, pero con enorme presencia en los debates filosóficos de Europa y Estados Unidos. El núcleo de su curso en "Zorroaga" no fue sin embargo una exposición de aspectos más o menos complejos de sus propias posiciones, sino una suerte de larga glosa a un texto clásico, el *Conflicto de las facultades* de Emmanuel Kant, tarea que Jacques Derrida abordó como una especie de reto: dar respuesta conceptual precisa a la pregunta que tantos se formulaban sobre la necesidad, o al menos la conveniencia, de que la Universidad del País Vasco, entonces en ciernes, se dotara de un centro que llevara el nombre de Filosofía.

Recuérdese que la situación de Euskal Herría era compleja, tanto desde el punto de vista económico como político, cultural en general y, sobre todo, lingüístico. La estructura industrial clásica se desmantelaba a través de sucesivos planes de reconversión, las nuevas instituciones políticas sólo resultaban satisfactorias para una parte de la población, una fracción de los insatisfechos había recurrido a la violencia, y en fin, la lengua vasca luchaba por abrirse camino tras años de sistemática marginación institucional, contra la que se alzaba la terca resistencia de sus hablantes.

---

<sup>6</sup> Jacques Derrida *La filosofía como institución* Granica Barcelona 1984.



En este contexto luchar por dotar al País Vasco de una universidad que llevara su nombre, era ya un acto político de primer orden, un paso por la efectiva autonomía (en el sentido fuerte del término) de un pueblo, más allá de los posicionamientos políticos de cada uno y de su concepción del lazo que Euskal Herría habría de mantener con la entidad política España. Sin duda el País Vasco había tenido y tenía otras universidades, pero se trataba aquí de un proyecto diferente; de alguna manera se trataba de una tentativa de restauración. Con toda la distancia me permitiré al respecto evocar un hecho histórico:

La ciudad alemana de Jena había sido el núcleo de la ortodoxia luterana, y su universidad tenía gran reconocimiento desde el siglo XVI, llegando a principios del XVIII a ser la más grande de Alemania y entrando después en una cierta decadencia. Pero al final de ese mismo siglo, en los convulsos tiempos de la Revolución Francesa y la expansión napoleónica, Goethe se propone hacerla renacer, convenciendo al monarca ilustrado Carlos Augusto de dar impulso a la facultad de filosofía, para lo cual hace que se incorporen sucesivamente Friedrich Schiller (1789), Shelling ( 1789), Johan Gottlieb Fichte ( 1794) y , Georg- Wilhelm-Friedrich Hegel (1801). Cuando, en 1806, a la vez se consuma la ocupación de esas tierras germánicas por las tropas napoleónicas y se juega en una batalla el destino de Europa, la Universidad de Jena no deja de representar la vida espiritual del país, entre otras cosas porque la actividad en el departamento de filosofía es febril, y sabe hacer compatible la creación en lengua alemana, con la incorporación del espíritu de los nuevos tiempos. Espíritu que más tarde representaría la universidad de Berlín, ya liberada Prusia del poder napoleónico, pero contando entre sus profesores con el mismo Hegel que había sido ferviente admirador de lo que la revolución francesa significaba. Y aquí vuelvo a los años convulsos de Zorroaga:

*El departamento de filosofía es [administrativamente] un departamento entre otros y sin embargo toda la universidad,* indica Kant en el *Conflicto de las facultades*. ¿Qué quiere decir el pensador? No ciertamente que en el departamento de filosofía se introduce a los alumnos a todas las disciplinas, haciendo de sus estudiantes cualificados maestros en cantidad de oficios. El *toda la universidad* significa simplemente que el conjunto de materias que se transmiten e investigan en la institución encuentran en la filosofía una unidad focal de significación, sin la cual correrían el peligro de perderse en la minucia de sus propios meandros, es decir, de ser insignificantes. La filosofía recuerda a las disciplinas científicas alguna cosa importante, empezando por la motivación originaria de las mismas, que no es otra que la exigencia de inteligibilidad. Me permitiré al respecto evocar tópicos de la historia de la ciencia y glosar un comentario a los mismos de uno de los más importantes físicos del siglo veinte.

## La inteligibilidad como motor de la ciencia

Pese a la evidencia empírica que suponía la circunvalación de la Tierra por navegantes de diferentes países, fue difícil superar argumentos en contra de la esfericidad, que parecían del todo razonables. Así la objeción de que, al alejarse de nuestro horizonte, abandonaríamos progresivamente la posición que nos mantiene sobre la superficie y al llegar a la antípoda, pura y simplemente caeríamos en el vacío. Argumento complementario es que, en la hipótesis de la esfericidad, dejaría de haber un “arriba” y un “abajo” propiamente dichos, pues, de mantenerse alguien en el otro extremo, para él nuestra actual posición sería “abajo”.

Había además la confianza en la intuición inmediata, que de ninguna manera abogaba por la esfericidad (aunque repleta de accidentales curvaturas como las colinas, la superficie de la tierra se nos antoja de entrada plana). Y desde luego la intuición tampoco abogaba por la tesis de que el sol era un enorme astro incandescente, en torno al cual otros astros (la Tierra entre ellos) girarían. Este segundo ejemplo es tanto más interesante, cuanto que no se daba siquiera el análogo empírico de lo que la circunvalación marítima supuso para el primero y que forzó al silencio tantas voces conservadoras.

Si a ello añadimos que las doctrinas religiosas imperantes (pero también muchas de las que ya no lo eran) daban en general apoyo a las arraigadas convicciones sobre la centralidad de la Tierra, ¿qué hizo que las nuevas hipótesis astronómicas fueran abriéndose camino? Pues simplemente que, por contrarias que fueran a la intuición y a la fe, poseían gran fuerza explicativa. Ahora bien: lograr aclarar, explicar, sustentar en razón el entorno terrestre o celeste, y a poder ser en su totalidad, constituye en palabras de Max Born *“el ardiente deseo de toda mente pensante”*, deseo que no se aminora en absoluto por el hecho de que aquello que se trata de aclarar *“sea eventualmente de total irrelevancia para nuestra existencia”*. Casi cada palabra es importante en estas afirmaciones del Nóbel de Física e interlocutor mayor de Einstein. Conviene enfatizar el hecho de que el apetito de transparencia es propio de *todas* las mentes pensantes, no meramente de una élite social, religiosa o intelectual. Pues bien:

La existencia misma de una disciplina como la filosofía, y su traducción administrativa como un departamento entre otros, viene a recordar que incluso la exigencia de inteligibilidad no lo constituye todo. Pues, encarnando la ciencia emblemáticamente tal exigencia, si la inteligibilidad fuera el último motor del espíritu, la filosofía obviamente sobraría. Dicho de otro modo: sólo si se rebaja la concepción de la ciencia haciendo de ella una actividad determinada por la consecución de imperativos prácticos, la filosofía podría reivindicar como tarea propia la búsqueda de inteligibilidad. Mas

asumiendo que la ciencia misma es ante todo aspiración a hacer inteligible nuestro entorno físico y con ello también una parte de nuestro propio ser, ¿qué queda a la filosofía?

Intentar dar alguna respuesta a esta interrogación nos obliga a retornar a lo que fue la infancia misma de nuestra civilización, esa infancia luminosa que se dio con los pensadores jónicos.

### **Postulados que sustentan el pensar de la ciencia**

Muchos son los que se han planteado la pregunta relativa a cuál es la singularidad del pensamiento jónico, entre ellos el eminente científico Erwin Schrödinger. Una de las respuestas va en el sentido de considerar que en Jonia, por vez primera en la historia de las civilizaciones converge el doble movimiento de ideas siguiente: tras los fenómenos naturales no hay que buscar intervención de fuerzas o voluntades externas, tales como el capricho de los dioses; tanto como decir que la naturaleza tiene autonomía o subsistencia; en segundo lugar esta naturaleza autónoma no es aleatoria, rige en su seno una necesidad, la griega *anagke*. Es necesario explicitar un poco más este punto:

Hablar de necesidad natural supone no sólo postular que la naturaleza es, como decía, independiente respecto a entidades exteriores a la naturaleza misma, sino también postular que un acontecimiento no es aleatorio, se debe a algo, se vincula a otros acontecimientos. Con todas las cautelas posibles, me atrevo a referirme a uno de los principios más problemáticos de la historia de la ciencia: contemplar la naturaleza bajo el postulado (más o menos explícito) de la *anagke* supone considerar que no hay cabida para la contingencia, que todo lo que acontece tiene su causa o razón (retomaré más adelante este punto).

Pero todo ello no autorizaría a decir que entre los griegos, y concretamente entre los pensadores de la civilización jónica, surge esa actitud de espíritu a la que Aristóteles apunta con el término *episteme* que nosotros vertemos con la palabra ciencia. Ello exige en efecto considerar que la necesidad tiene una relación potencial con el pensamiento, de tal manera que éste puede llegar a convertirse en un espejo de la misma, o sea que la necesidad es *inteligible*.

El salto es enorme, pues podría postularse la ausencia de aleatoriedad en el orden natural considerando sin embargo que desgraciadamente nuestro espíritu es impotente para deslizarse por la enorme complejidad de los meandros de la misma. En el fondo, la tesis de que el pensamiento humano se halla potencialmente en condiciones de llegar a reflejar el orden natural no deja de ser un *a priori*, sin duda vigorizado por los prodigiosos avances

de la ciencia, pero incierto como casi todos los *a priori* que van más allá de los axiomas básicos. Casi se trata de una predisposición psicológica, la cual tiene ciertamente contrapunto en la figura del escéptico, para quien el fulgor de las proposiciones claras y distintas no es más que un espejismo.

Esta postulación de la inteligibilidad de la naturaleza se presenta con un rasgo al que no sólo filósofos sino científicos eminentes como Erwin Schrödinger han conferido enorme importancia, a saber: que la efectiva intelección de los acontecimientos naturales por parte de un sujeto transforma a ese sujeto, pero no afecta al objeto. Esta indiferencia de la naturaleza al acto de intelección es casi un corolario de la subsistencia y autonomía del orden natural: la naturaleza, cabría decir, es tan firme que se expone sin riesgo a la transparencia; la naturaleza permanece indiferente a la mirada de aquel que ha apartado los velos que la recubrían.

Sin duda, se dirá, en ocasiones la intervención del hombre modifica la naturaleza, aspecto este definitorio de la técnica. Pero el defensor de la idea de la ciencia como marcada por la exigencia de inteligibilidad respondería lo siguiente: cuando se trata de intelección la técnica juega sólo un papel instrumental (el telescopio se construye para observar la luna, no para modificarla); además aquello que la técnica modifica es sólo algo muy superficial en el seno de la naturaleza: transformamos unos materiales para forjar un telescopio que desvela el orden de las constelaciones sin alterarlas. Hoy ciertamente esta dicotomía entre inteligibilidad y técnica es a veces muy difícil de mantener (así por ejemplo, el experimento en física de Alain Aspect tiene el mismo peso ontológico que el teorema de Bell, siendo la intrincación entre ambos lo que introduce una tremenda crisis en nuestra



representación de la naturaleza); pero ello no es óbice para que haya jugado un enorme papel en el pasado.

### ¿Qué añade la filosofía?

